



Emakumeok*planto
Nosotras paramos

Zorionak mundu zabalean Greba Feminista Internazionalistarekin bat egin duzuen milioika emakumeei. Zorionak Arrasaten, Planto egitea erabaki dugun emakume guztioi. Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak bat egin du EMAKUMEOK* PLANTO aldarriarekin, menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzen. Gaurko eguna bide luze baten abiapuntua izango da. Bide horretan, aliantza berriak ehuntzen hasi gara, bateratuz eta elkar ezagutu gara, gure borrokak berriz pentsatuz, erresistentzia berriak eraiki ditugu, eta baztertzeko gaituen mundutik askatuz, betiere alternatiba feminista bat sortzeko helburuarekin.

Gaurko greba, ohiko greba batetik haratago doa, emakumeok planto egin dugu, ikastetxe, jangeletan, udaletxean, banketxetan eta lantegitan, baita ikasleek ere, baina hortik haratago, greba egin dugu kontsumoan eta zaintzan. Ez dakigu zenbat amonak ez zieten bazkaltzen emango ilobei, edo zenbat, zaintzailek ez dute merienda eman gaur arratsaldean edo zenbait emakume migrantek izan duten posible greba egitea interno dauden etxeetan. Ez da erreza hori datutan neurtzea. Baina guretzako garrantzitsuagoa da jakitea etxe askotan gaurko eguna zelan antolatu pentsatuta, beraien etxeko lanen banaketen inguruan hausnartzen hasi direla. Gure artean eztabaidatu dugu, jangela zerbitzurik ezean nola egin behar genuen etxeko logistika bazkaldu ahal izateko ... Honek guztiak bihurtik aurrera lanak beste modu baten banatzen hasi beharko ginatekeela pentsatzeko lagundu digu. Honek guztiak egiten den lan guzti hori baloreen jartzeko balio izan digu.

Gaur emakumeok* Planto esan dugu, egungo sistema honek sexuaren arabera lan banaketa bultzatzen duelako, eta feminizatutako ogibideak ezkutatu eta gutxien dituelako, bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutakotako lanak. Nazkatuta gaude Sistema honek ez dituelako emakumeen* enpleguak modu berean baloratzen, emakumeok* gutxiago kobratzen jarraitzen dugulako. Feminizatutako lanbideen eta autonomoen prekarietatea sustatzen du, eta ikusezin bilakatzen ditu zaintza lanak, neurri handi batean emakumeok* doan eginak, eta nagusiki migratutakoek. Sistema honek indarkeria ekonomikoaz jazartzen gaitu. Institutuzioetatik Osasungintzan, Zerbitzu publikoan eta Hezkuntzan egiten diren murrizketak emakumeon gain ezartzen dira. Gaur dei egiten dugu "Denok ondo bizitzea" erdigunean jarriko duen ekonomia sustatzera eta ez gutxi batzuen etekina bultzatzera. Gaur lanak denon artean, banatu eta zaintza lanak eta denok hobeto bizitzeko lanak ondo baloratzen hastea exijitzen dugu.

Ez dago hilketa, sexu eraso edo jazarpenik gabeko egunik. Bitartean, hedabideek gure arreta desbideratzen dute, ahaztu eta dirua xahutu leloa gauzatzera animatzen gaituzten kontsumo eredu berrien bidez. Haien helburua lortzeko ez dute nolanahiko estrategia erabiltzen: emakumezkoen* irudiak baliatzen dituzte sexu objektu gisara, eta estereotipo sexistak sistematikoki barreiatzen dituzte. Eta bitartean, eskoletan hezkuntza sistema patriarkal eta androzentrikoa nagusitzen da, emakumeen* ekarpen historikoak alboratzen dituena, merkatuko premietara zuzendutako gaiak eta edukiak hobesten dituena, eta genero rolak auzitan jarri ez eta errotzen dituena. Gaur munduko milioika emakumek aldarrikatu dugu denak bizirik nahi ditugula. Gure gorputzen, sexualitatearen eta bizitzen erabakia hartu nahi dugula. Hezkuntza eredu hezkidetzailea eraiki nahi dugula eta bestelako kontsumo eredu baten alde borrokatzeko prest gaudela.

Horrenbestez, emakumeek gure aniztasun osoan PLANTO EGIN DUGU!!!! EZETZ esateko, nahikoa dela, hitz-jario ustelekin eta ekintzen eskasiarekin nekatuta gaudela, diskurtso hutsalek ez zaizkigula jadanik balio.

Muga guztiak gainditu dituen greba feminista bat burutu dugu: gure aldarrikapenak lan munduaz harago doaz, lanaren kontzeptua birplanteatu nahi dugu egungo eredu neoliberal predatzaile, arrazista eta koloniala auzitan jarritz. Gaur denon artean gure borrokak lan esparrua, politika, bizitza eta ekonomia zeharkatzen dituela adierazi dugu. Hau ez da defentsarako greba hutsa: eredu osoa aldatuko duten proposamen politikoekin atera gara kalera! Gure aniztasunetik zabaldu dugu greba feministarako deia Euskal Herrian; alegia, gure gorputz, gure bizipen, gure adierazpen molde eta munduan egoteko modu ezberdinen aniztasunetik. Gaurkoa bide luze baten abiapuntua besterik ez da izan eta argi dugu bihar ere borrokan jarraituko dugula munduko emakume guztiok* libre izan arte!!!!

GORA BORROKA FEMINISTA!!!!